

Herriko berbeta oinarri, ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan

Estepan Plazaola Otadui

Euskara teknikaria

1. SARRERAKOAK

Aitortu behar dut Mendebalde elkarteaz entzutea bai baina ez nuela orain arte ezagutza handirik. Era berean, esan beharrean naiz, jardunaldiotan parte hartzeko eskaintzak berak ere ezustean harrapatu ninduela. Ezustean baina pozez. Ez naiz ni halako lanak kosta barik ateratzen dituztenetakoa baina ilusioz idatzi ditut jarraian doazen orriok. Hala, bada, eskerrak eman nahi dizkiet Mendebaldeko lagunei gure eginak eta asmoak plazaratzeko eskaini didaten laguntzagatik.

Aurkeztuko dudan lanaren nondik norakoari dagokionez, esan dezadan, batez ere, azken urteotako gure esperientzian eta eguneroko lanean oinarrituko naizela. Horien berri emango dut eta, horiek oinarri hartuta, hizkuntza normalkuntzarekin lotutako zenbait gairen inguruko nire iritziak eta balorazioak azalduko ditut.

Aurkezpenaren egiturari dagokionez, berriz, lehenengo eta behin, gure jarduna kokatzen ahaleginduko naiz bai herrian eta baita Euskara Biziberritzeko Planaren barruan eta, jarraian, ditugun programa nagusiak azalduko ditut.

Azkenik, amaitzeko, gai honek dituen hainbat alderdiren inguruko balorazioa agertuko dut.

2. BERGARA. KOKAPENA:

2.1. Bergarako hizkera: Bonapartek *Bizkaiera* eta Zuazok *Mendebalekoa* deitutako euskalkiaren barruan dago Bergarako berbeta. Hala ere, esan behar da, bergararren jardun jasoko hizkera, (elizkizunetako, irratikoa..) gipuzkera izan dela eta euskalki horrekiko mira izan dutela aspalditik.

Elxpururen hiztegitik (Elxpuru 2004:23) jasotako aipua da honako hau:

Elizan gipuzkera erabili izan da eta handikien artean ere euskalki hau izan da prestigioko hizketa. Zera idazten dio 1859an Aita Uriarte¹ bizkaitarrak Bonaparte printzeari: “*Sucede en todas estas poblaciones* (Mutriku, Deba, Mendaro, Alzola, Elgoibar, Eibar, Plazentzia, Bergara, Antzuola eta Oñati aipatu ditu lehenago) *que mirán con desdén el vascuence de Vizcaya y son muy apasionados del dialecto de Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de ese dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido gipuzcoanizar al pueblo.*”

¹ “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”. BAP, 1954, 10. alea.

Beraz, oro har, bertako euskaldun zaharrek ez dute inolako arazorik gipuzkera eta batua ulertzeko eta ez da harrigarria, bestalde, giputz jendearekin berba egitean nola edo hala elkarrizketakidearen hizkerara hurbildu nahirik bertako jendea erdi-gipuzkeraz *det*-ka jardutea ere.

2.2. Ezaugarri soziolinguistikoak

Bergarak 15.000 bizilagun eskas ditu eta euskaldunak % 69 inguru dira. Kopuru horiek gutxi aldatu dira, bestalde, azken 25 urteetan: 1000ren bat bizilagun galduko zituen eta %5 inguru igo da elebidunen kopurua. Kaleko erabilerari dagokionez, %40-45 inguruan dabil eta hor ere ez dugu aldaketa nabarmenik izan.

Horiek dira balore orokorrak. Begiratu batera, ematen du urte horietan ez dela aldaketarik izan. Gauza, ostera, oso bestelakoa da, adinez adineko datuak aztertzen baditugu ikusiko dugun moduan.

Urtero egiten dugu euskararen kaleko erabileraren neurketa eta hor ikus dezakegu urteotan egon den iraultza.


1983an zaharrak ziren nabarmen euskararen erabilera altuena (%54) azaltzen zutenak eta gazteak, berriz, alde handiarekin bajuena (%10) agertzen zutenak.

1. taula. Euskararen erabilera (%) kalean, batez bestekoak, urte multzoka

Urtea	Haurrak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-65)	Zaharrak (65-..)
1983-88	51,5	15	38	58
1989-1995	63,52	35,68	26,02	49,02
1996-2000	59,78	42,82	26,74	41,58
2001-06	63,2	48,4	32,1	35,3
2007-08	59,25	53	36,55	33

Iturria: Bergarako Udala.

1. grafikoa. Euskararen erabilera (%) kalean, batez bestekoak, urte multzoka.



Iturria: Bergarako Udala

Azkeneko urteetan, ostera, gazteenak dira erabilera altuena azaltzen dutenak eta adinean gora egin ahala erabilera hori gero eta bajuagoa da.

Gaitasunean ere gertatzen ari den bilakaeraren isla da hori, jakina.

Egoera hori biziberritzearen adierazle pozgarria da, dudarik barik, baina seguruena izango ditu bere ondorioak ere: beren aurreko belau-naldien eredurik barik egin behar dute aurrera belaualdi berriek.

3. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) 2008-2011

Frankismo ostean, orain dela hogeitaka urte ekin zion Bergarako Udalak hizkuntza normalkuntza lanari eta harrezkero hamaika arlo jorratu dira.

Une honetan EBPN 2008-2011 plan estrategikoa du indarrean eta planak gizarte esparru gehienei heltzen die, hala edo hola: familia, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, teknologia berriak, lan-mundua, esparru soziokulturala, corpus-plangintza, hedabideak, liburugintza...

Bestalde, esparru horietako hiru (tartean corpus-plangintza eta kalitatearena) zeharlerrokozat jo dira, hau da, esparru guztietan aintzat hartzekozat.

Esparru horietan guztietan dugu ekimenen bat eta hainbatetan baita herritarren parte hartzea bideratzeko lantaldeak ere.

4. HERRI HIZKERAREN LANKETA

4.1. Lehen ildoak. Corpus bilketa

Aspaldi samar ulertu zuten Bergaran, behintzat gune batzuetan (UNEDeko Euskal Kultur Departamentua, Aranzadi ikastola...), euskara indartzeko ahaleginetan tresnetako bat bertako euskara izan behar zuela. Artean “*euskara batua ala euskalkia*” eztabaida indarrean zegoela, 1980. urtean, Juan Martin Elexpuruk DVn argitaratutako artikulu batean² defendatzen zuen tarteka herri hizkeraz ere idatzi behar zela: *Euskera batuan alde nago baiña noizian behiñ komeni da herriko euskeran be zerbaitt eskribitzia.*

Ardura horrek eraman zuen, adibidez, UNEDeko Euskal Kultur Departamendua (Elexpuru, Jerardo Elortza eta abarren gidaritzaz) herri hizkeraren gaineko hainbat ikerlan egitera. Lanketa horien emaitza izan zen 1986an argitaratu zen *Bergarako Euskera* lana (Asko-

² *Begarako Euskera* liburuan jasota dago artikulua, 1980ko maiatzaren 23an DVn argitaratua.

ren artean 1988), herri-hizkeraren gaineko lehenengo samarrekoetakoa izan zena.

Geroago, 1993an, ekin zion UNEDeko EKDK Udalarekin lankidetzan *Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak* bilduma osatzeari. 8-10 langintza zahar aztertu ziren bertan: langintzon lexikoa, teknikak... Lan horiek 4 liburutan argitaratu zituen Udalak.

2004an argitaratu zuen Udalak Juan Martin Elexpuren *Bergara aldeko hiztegia*, hainbat urteko lanaren emaitza. 11.000 sarreratik gora eta 2.600 esapidetik gora ditu, besteak beste. 2007an jarri zuen Udalak lana sarean kontsultatzeko moduan.

Lan horiek egiteko dozenaka lagun elkarrizketatu behar izan ziren eta elkarrizketa horiek eta geroago Debarroko Ahotsak programaren barruan Udalaren enkarguz Badiharduguk egindako beste hainbat www.ahotsak.com/bergara helbidean daude gaur egun. Bertako hizkeraren corpus zabala dugu, beraz, bertan erabilgarri: 141 hiztun, 240 zinta, 1900 pasarte inguru kodifikatuta...

Aipagarria da, era berean, Aranzadi ikastolan, bertako hainbat material, bereziki Haur Hezkuntzan erabiltzen dituztenak (ipuinak...), herri-hizkeraz jartzeko egin duten ahalegina³.

4.2. Bigarren ildo: kalitatea, hizkuntza lanketarako baliabideen eskaintza. *Gehixago eta hobeto* programa

Esan genezake, beraz, lehenengo ildo bat herri hizkerazko corpus bat osatzea izan zela.

Bigarrean, berriz, hizkuntzaren kalitatean eta hizkuntza lanketarako baliabideak eskaintzen zentratu gara. Hor kokatuko genuke

³ Honen berri jasota dago Ane Barrusoren eskutik Mendebalde elkarteak antolatutako 2001eko jardunaldien liburuan.

Gehixago eta Hobeto programa, hemen luze-zabal samar azaltzen ahaleginduko naizena.

4.2.1. Programaren jatorria

Hizkuntza normalizatuetan gurasoak, nagusiak, izaten dira umeen hizkuntza eredu.

Euskararen kasuan askotan ez da hori betetzen; kasu batzuetan nagusiek jakin ere ez dakitelako eta beste batzuetan beren euskara gutxietsi eta ez dutelako eginkizun hori euren gain hartzen.

Eta, oraindik okerrago, batzuetan gertatu izan da ondo egiten duten guraso edo aitajaun-amandreek umeen akatsak zuzendu beharrean umeen akatsak eurenganatzea ere. Esate baterako, *Nire zorionak dira, Realak ondo jolastu dau, betiko bezala...* ez dira ibili izan oraintsu arte gure inguruko euskaldun onen ahotan, baina gaur gutxien uste denak botatzen ditu.

Egoera horrekin kezkatuta, orain dela 10 urte, 1998-1999. urte inguruan Bergarako ikastetxeek, Eibarko Berritzeguneak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak herri mailako programa bateratua abian jartzea erabaki zuten: *Gehixago eta Hobeto* programa.

4.2.2. Helburua

Programaren bitartez, ahal den neurrian, bergararren ahozko euskara hobetzea lortu nahi da; eta, batez ere, akats ohikoenak zuzentzea.

4.2.3. Hartzaileak

Programako hartzaile nagusiak haur eta gazteak eta hizkuntza jarraipenean protagonismo handiena duten giza multzoak dira: gurasoak, irakasleak, astialdiko begiraleak... Berez, programaren pisu nagusia eskolen inguruan egituratzen da baina ume eta gazteen ger-

tuko beste gune batzuetara ere iristeko ahalegina egin da: etxea, kirolguneak, dendak...

4.2.4. Programako eragileak eta antolaketa

Euskara Biziberritzeko Planaren barruko lantaldeetako bat **Irakas-kuntzako azpibatzerdea** da. Hilean behin edo elkartzen da eta bertan koordinatzen dira programa honen eta ikastetxeekin elkarlanean bideratzen diren beste hainbaten ingurukoak.

Azpibatzerde honetan parte hartzen dute, besteak beste, ikastetxe-etako normalkuntza planetako ordezkariak, euskara elkarteko ordezkariak, hezkuntza teknikariak...

Gurasoei ikastetxeetan ematen zaie programaren gaineko informazioa, ikasturte hasierako bilerak aprobetxatuz. Horretaz aparte, gero azalduko dugun moduan, hiruhilabetero landuko den unitatearen gaineko informazioa bidaltzen zaie umeen bitartez.

4.2.5. Akatsak lantzeko baliabideak

4.2.5.1. Unitate didaktikoak

Gorago esan bezala, programaren alderdi nagusia, ahozko akats ohikoenak (zehatzago esanda, akats gramatikalak) zuzentzera bideratua dago. Akatsok lantzeko baliabideak sortu eta eskaintzen egin dugu, beraz, lanaren zati handi bat.

Programaren hasierako urteetan, akatsaren inguruko material solteak (azalpen gramatikala, gurasoei bidaltzeko azalpenak...) prestatu ohi ziren eta ikastetxeen edo programako beste partaideen esku gertzen zen akatsak zuzentzeko baliabideak sortzea.

Bigarren aro batean, akatsak lantzeko unitate didaktikoak egitea erabaki genuen, akatsen lanketa ahalik eta bateratuen eta osatuen egiteko.

Bestalde, zenbait kasutan akatsak lantzeraz, ezpada arloren bateko eredu egokiak eskaintzera bideratutako unitateak ere sortu ditugu: jolas eta jokoaren ingurukoak, gorputz atal eta mugimenduen ingurukoak...

A) UNITATEEN GAIA ETA EGITURA

Unitate didaktiko bakoitzean normalean bizpahiru akats landu izan dira eta, jeneralean, hiruhileko bakoitzerako unitate bat prestatu izan dugu. Akatsok, batzuetan, elkarren artean loturarik ez dutenak izan dira baina goian esan bezala, beste batzuetan landu izan dira gai jakin baten inguruko akatsak eta gai horren inguruko baliabideak eskaini izan zaizkie. Horretaz aparte, goian esan bezala, hainbat gairen inguruko eredu onak ere landu izan dira: inauterietako esamolde eta hiztegia, joko eta jolasen mundua...

Arlo guztietako akatsak jorratu dira: aditzari dagozkionak, morfo-sintaxiazkoak, lexikoarekin lotuak, gaztelaniazko lokailuekikoak...

Adibide gisa, hona hemen jorratutako akatsetako batzuk:

- Nor / Nor-Nork nahasketa: *hankia apurtu naiz, balkoitik bota da.*
- Singularra / plurala: *praka gorrixak jantzi biot.*
- Jo: *ostikadia jo dost, atiakin jo naiz.*
- Baino ago: *zure baino haundixagoa.*
- Baleike: *baleike jun komunera.*
- Bezala: *zure bezala, betiko bezala.*

Egiturari dagokionez, unitate didaktiko guztiena antzekoa izan da: helburuak, akatsen azalpenak, ikasmaila bakoitzerako ariketak...

A2) UNITATEEN SORTZE ETA LANTZE PROZESUA

Unitaterako gaiak aukeratzetik abiatzen da prozesua. Lan hori Irakaskuntzako azpibatzordean egiten da. Landuko diren akatsez gain, bultzatuko diren hizkuntza formak ere komentatzen dira.

Bigarren fase batean, Udaleko Euskara Zerbitzuaren ardua izan ohi da unitatearen behin-behineko proposamena osatzea eta batzordekideei bidaltzea hurrengo bilera aurretik aztertu ahal izateko. Unitatea sortzeko lan hau ere batean baino gehiagotan bideratu izan da eta azken urteetan AEKk gauzatu izan du Udalaren enkarguz, Euskara Zerbitzuaren partehartzearekin.

Lehenengo unitate-zirriborroari egokitzat jotzen dituzten proposamenak egiten dizkiote ikastetxeek eta behin-betiko proposamena osatu ondoren, Euskara Zerbitzuak behar beste kopia egin eta banatu ohi die ikastetxeei bai paperean eta baita formatu digitalean ere. Hainbat tamainatako unitateak egin izan dira baina, batez beste, 35-40 orrialde inguru izan dituzte eta klase askotako ariketak izaten dira: ikastetxean bertan egiteko idatzizko ariketa analitikoetatik hasi eta jolas-lekuan zein etxean egiteko moduko jolasetaraino. Ikastunitatea eta dagokion materiala eskuan izanda, ikastetxeen lana hasi ohi da: normalkuntza arduradunek ikastetxean unitatea aurkeztea, lan-keta...

Hurrengo koordinazio-bileran bildu dira gauzatzean jasotako irizkiak eta balorazioak: irakasleek esandakoa, ikasleen harrera...

4.2.5.2. Baliabide osagarriak

Akatsak lantzeko gune nagusia eskola da. Edozein modutan, gure apustua, nahi besteko arrakastaz bideratu izan ez duguna, programako mezua eta materialak, beste eremu batzuetara, batez ere etxeetara baina baita eskolaz kanpoko mundura ere, helaraztea izan da eta horretarako sortu izan ditugu zenbait material:

- *Gurasoentzako materialak eta Apatxi aldizkaritxoa*. Gorago esan bezala, hiruhileko bakoitzean zuzendu nahi diren akatsen inguruko informazioa eta ariketatxo batzuk bidali izan zaizkie, ahal duten neurrian, eurek ere parte har dezaten.

Horretaz aparte, etxera eramateko eta bertan lantzeko aldizkaritxo bat ere sortu izan dugu, lehen hilerokoa zena eta orain hiruhilean behin argitaratzen dena: *Apatxi* aldizkaritxoa, 4 orrikoa, eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetakoei zuzendua. Akatsen inguruko azalpenak eta ume eta gurasoek etxean egiteko ariketak eta jolasak izaten ditu. Lehenago, ipuinak, inkestak, magia jokoak eta abar ere bai.

Urte bukaeran urtean argitaratutako *Apatxi* aldizkaritxoen bilduma egin eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei banatu izan zaie.

- *Kartelak*. Unitatean landuko diren gaiekin lotutako kartelak ere sortu ohi dira, ikastetxeetan hormetan jartzeko.
- *Komikiak*. Unitate didaktiko bakoitza lantzean ikastetxeetan ikasleek beti sortu ohi duten material bat komikiak izan ohi dira. Komikiotan akatsen berri eman eta eredu ona proposatzen da. Komikiotatik batzuk ikastetxeetan bertan jarri ohi dituzte eta beste batzuk haur eta gaztetxoak ibiltzen diren guneeetara eraman ohi dira:
 - *Eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzen diren guneeetara*: musika, kirola, katekesia...
 - *Haur eta gazteak ibiltzen diren beste eremu batzuetara*: denda, kirol-instalazio eta abarretara.

4.2.5.3 Gehixago eta Hobeto sarean

Hamar urtean ehundaka ariketa sortu izan dira *Gehixago eta Hobeto* programan. Une honetan gure apustua material horren erabilera erraztea da eta horretarako, guztia sarean jarri dugu. Bestalde, oraingoz, lehen formatuaren araberrako unitate didaktikoak egiteari utzi egin diogu eta material berriaren sorkuntzan bi ildo jorratu nahi ditu-

gu: material interaktiboak sortzea eta, ahal den neurrian, ahozko materialak bultzatzea.

4.2.6. Igorleen formaziorako ikastaroak

Zalantzarik barik, ariketa guztiek baino garrantzia handiagoa du hizkuntza transmisore nagusi direnen eredia ona izateak. Hori dela eta, hizkuntza transmititzailer horiek formatzeko bideak eskaintzen saiatzen gara bai, gorago esan bezala, eurentzako materialak sortuz eta, baita, beste kasu batzuetan, ikastaro laburrak eskainiz ere. Hala, 10-12 ordu inguruko ikastaroak eskaini izan dizkiegu irakasleei, begirale-jendeari, guraso eta zaintzaileei nahiz herritarrei orokorrean.

Era berean, akats ohikoenon gaineko liburua (Badihardugu 2005) ere argitaratu genuen.

5. ESPARRU JAKINETARAKO PROGRAMAK

Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko oinarrizko faktorea, zalantzarik barik, erabilera handitzea da.

Hala, bada, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan hainbat ekimen ditugu esparruz esparru, bereziki, ume eta gazteen erabilera bultzatzeari begira: batzuetan erabilera guneak sortzekoak eta beste batzuetan hizkuntza elikabideak eskaintzekoak. Batzuek herri hizkera dute oinarri; beste batzuek, ez. Nagusien aipamen laburra egingo dut hemen:

A) Familia. Sentiberatzeko eta laguntzeko materialak:

- **Amagaiantzako liburua eta CDa.** Eskualdeko emaginek sortutako materiala, haurdunei banatzen zaiena. Liburuak bost gai jasotzen ditu: haurdunaldiko zainketa, erditze osteko zainketa, edoskitzea, masajea eta haurren zainketa. DVDak, berriz, gai praktikoen azalpenak eskaintzen ditu.

- **Guraso berrientzako sentiberatzea.** Umea izan berri duten **bikoteak sentiberatzeko programa.** Hilero bidaltzen zaie gutuna, aholkuen diptikoa, ume berbetazko hiztegitxoa, kanten liburuxka eta CDa eta autorako pegatina.
- **Ume txikien gurasoentzako.**
 - **Liburuxka eta DVDa.** “Gurasoentzako aholkuen liburuxka eta Kantu eta Jolasen DVDa” Helburua gurasoei umekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea da.
 - **Ikastaroa. Jolas-kanten eta Ipuin-kontaktako ikastaroa...** Honakoa da helburua: gurasoei beren seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea eta umeen eta familiakoen arteko afektibitatezko loturak indartzea, elkarri entzunez, elkarrekin jolastuz, kantatuz, ipuinak irakurriz...
- **Edozeinentzako. Euskarazko produktuen katalogoa.** Euskarazko kultura eta aisiako produktuen eskaintza ezagutzera emateko eta produktu horien eskaera ugaltzeko. Gabon aurretxoan banatzen da herri mordo batean.

B) Irakaskuntzari bideratuak

- **Euskara apalenekoentzako indargarriak.** Euskara maila apalenekoei eskola orduz kanpo bideratutako errefortzu-saioak. Urtean zeharreko saio ludikoak izan ohi dira eta irail hasieran antolatu ohi dugu barru ikastaroa ere, oporretatik bueltatzean galdutako hizkuntza erraztasuna berreskuratzeko. Azkeneko urteetan etorkinentzako saioak ere antolatzen ditugu.

Bestalde, ikastetxeei eurei ere eskaintzen dizkiegu diru-laguntzak errefortzu-saiook eurak antolatzen dituzten kasuetan.

- **Lagunarteko hizkera lantzeko tailerrak.** DBH-2ko ikasleei bideratutako saio laburrak, lagunarteko hizkera lantzekoak.

Jolas eta dinamiken bidez hainbat gai eta adierazmodu lantzen dira: piropoak, sexu-kontuak, irainak, haserreak, adar-jotzeak... Lasarteko Ttakun euskara elkarteak bideratzen ditu.

C) Helduen euskalduntzea

- **Berriketan programa.** Euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei edo hitz egiteko aukera gutxi dutenei erabiltzeko aukerak zabaltzeko programa. Hainbaten kasuan euskalkia praktikatzeko bidea izaten da eta Bergarako kasuan izan da hitanoa praktikatzeko sortu den talderik ere.

D) Esparru soziokulturala

- **Eingou hitzarmena.** Esparru soziokulturaleko 85 elkarterekin (asko ume eta gazteekin lan egiten dutenak) sinatutako hitzarmena. Besteren artean, haur eta gazteei bideratutako ekintzak euskaraz bideratzeko konpromisoa hartzen dute.
- **Kirola euskaraz programa.** Debarroko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek abian jarritako programa, kirol arloan euskara sustatzera bideratua. Besteak beste, entrenatzaile eta monitorentzako fitxa didaktikoak eta euskarazko formazio-bideak eskaintzen dira.
- **Koldo Eleizalde lehiaketa.** Hasieran ipuin idatzien lehiaketa izan zen. Azkeneko urteetan ahozko generoak bultzatzeko aha-legendetan dihardugu. Orain dela 3-4 urte sartu genituen bertsoa, ipuin-kontaketa/antzerkia eta komikia eta aurrean txiste eta pasadizo-kontaketa sartu dugu.

E) IKT eta Hedabideak

- **Gazte-aldizkariaren harpidetzak sustatzea.** Bereziki Gaztezulo aldizkariaren harpidetzak sustatzeko kanpaina berezia egin ohi

dugu baina beste aldizkari batzuen harpidetzak ere bultzatu izan ditugu: Ipurbeltz, Luma...

- **Bailarako hedabideentzako laguntzak.** Goiena Komunikazioak kooperatibaren jarduna diruz lagundu ohi du Udalak.

6. EGINDAKOAREN BALORAZIOA

“Ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan” dihardugula jarri dut izenburuan. Aitortu behar dugu ez dugula daturik hori zenbateraino betetzen ari garen jakiteko.

Ondorioetatik neur genezake zerbait. Pentsa genezake, erabilera handituaz badoa, ahozko jarduna hobetzearen ondorio (eta aldi berean, horretarako bide) izango dela. Baina, horretan ere datuek ez digute pista handirik ematen: kaleko erabilerari dagokionez, haurretan geldi samar dugu azken urteetan edo zertxobait behera egin digu; gazteetan, berriz, gora.

Baditugu beste datu batzuk ere, hauek gaztetxoan pertzepzioetan oinarrituak. DBH-2ko ikasleei pasatutako inkesta⁴ batetik lortuak dira. Hona zenbait galderak jasotako erantzunen emaitzak:

⁴ 2000. urtean *EHU-UPVko SOZIOLOGIA II SAILAk sortutako Etorkizuna aurreikusten* inkesta pasatu zitzairen orduan DBH-2n zebiltzan ikasleei. 2006an eta 2008an 2000ko inkestako galdera batzuekin eta geuk gehitutako beste batzuekin osatutako inkesta pasatu diegu adin bereko ikasleei. Bi urtez behin pasatzeko asmoa dugu.

2. taula. Orokorrean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu hobeto eskola gaiez ikaskideekin?(%) DBH-2ko ikasleak

Inkesta urtea	Euskaraz errazago	Bietan berdin	Erdaraz errazago	Ez dut euskaraz hitz egiten
2000	69,8	13,4	16,9	—
2006	59,0	26,9	13,4	0,7
2008	56,1	25,0	18,9	—

Iturria: Bergarako Udala.

3. taula. Orokorrean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu hobeto koadrilakoekin?(%) DBH-2ko ikasleak

Inkesta urtea	Euskaraz errazago	Bietan berdin	Erdaraz errazago	Ez dut euskaraz hitz egiten
2000	53,5	13,4	28,5	4,7
2006	42,5	26,9	25,4	5,2
2008	28,8	31,1	34,1	6,1

Iturria: Bergarako Udala.

Bere horretan datu kezkarriak dira. Irakasleen pertzepzioa ez dator bat datu horiekin: ez dute uste 2000ko gaztetxoek gaurkoek baino erraztasun handiagoa zutenik euskaraz. Era berean, nekez pentsa genezake azkeneko 2 urteetan aldaketa hor ikusten dena bezain nabarmena izan denik. Edozein kasutan ere, gaia hurrengo urteetan jarraitu beharrekoa izango da.

Bestalde, *Gehixago eta Hobeto* programaren balorazioa eginez honakoa esango nuke:

- Ez dugu daturik ahozko jarduna zuzenagoa den jakiteko ere. Pertzepzioz (gure eta irakasleen pertzepzioaren arabera), ematen

du egon dela aurrerapen bat, hau da, lehen ohiko samarrak ziren akats batzuk gutxiago edo apenas entzuten direla.

- Edozein kasutan, aitortu beharra dugu, egindakoa eta egiten diharduguna gutxietsi barik, darabiltzagun baliabideak mugatuak direla; oso mugatuak, gaztelaniak dituen elikabide erraldoien aurrean eta mugatuak, era berean, akats zabaltzaile etengabeak diren euskaldun erdipurdikoen multzo zabalaren aurrean.
- Hala ere, ez nuke balorazioa bukatu nahi dena negatibotzat jorik: transmisore nagusietan kontzientzi hartze bat izan dela uste dut eta egitura iraunkor bat ere sortu dugu, aurrera begira egitasmo hau hobetu eta indartzeko oso aprobezagarrria izan litekeena.

7. AURRERA BEGIRA ZER?

7.1. Helburua eta kalitatearen gaineko zenbait kontzeptu argitu beharra

7.1.1. Nora joan nahi dugu?

Gaur egun praktikan ez da euskaldun elebakarrik, ume txikiren batzuk kenduta. Euskaldun denok dakizkigu hizkuntza bi edo gehiago. Horrek ez du atzera bueltarik.

Zalbidek (Euskararen Aholku batzordea 2008a) ondo dioen moduan, “Euskara-erdarak hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-territorialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko duela onartu beharko dugu.”

Gure herrira etorrita, apustua, bizitzako funtzio gehienak euskaraz garatuko dituen eta euskaraz hobeto moldatuko den masa kritiko bat lortzea da.

Ez dakit ditugun baliabideek horretara iristeko modurik eskainiko diguten. Gorago esan bezala, datu kontraesankorrek ditugu. Ez dakigu, oro har, gaztelaniari aldea jaten ari gatzazkion ala handitzen ari zaigun.

Baina pentsa dezagun baietz, lorgarria dela etxean, lagunartean, hurbileko lan-munduan... beti edo ia beti euskaraz egingo duen ume eta gazte belaunaldi bat eraikitzea. Zalbidek dioen moduan, hori hil ala biziko du euskarak.

Bizitzaren zatirik handiena euskaraz egingo duen komunitate bat eraiki behar dugula esaten badugu, zeharka bada ere, esaten ari gara, beste hizkuntzetan gaitasun murrizagoa izango duen komunitate bat eraikitzeaz dihardugula. Elebiduna, hirueleduna... nahi dena izango da; beste hizkuntzetan ere ondo moldatuko da baina bere jarduna nagusiki euskaraz garatzen badu, beste hizkuntzetan ez da moldatuko euskaraz bezala. Eta hala nahi dugu: euskaraz besteetan baino hobeto moldatuko dena izatea. Edo, konparazioak alde batera utzita, nagusiki euskaraz biziko dena.

“Hala nahi dugu” diot baina badut zalantzarik. Euskaraz bi esaldi gaztelaniazko makulurik gabe osatzeko gai ez diren “euskaltzaleei” ere ez ote diegu entzun izan, burlaizez eta penaz bezala, esaten “urlia herritako gazteek, haiek bai egiten dutela gaztelaniaz gaizki!?”. Oraindik ere ez ote zaio hainbati, bere euskarari tatxa askorik ikusi barik, gutxiespenezko komentarioa ateratzen, hedabideren batean pertsonaia publikoren bati “euskarakadaren” bat ateratzen zaionean edo euskal azentua darionean? Beste modu baten esanda, non jartzen dugu hizkuntza bakoitzaren gaitasunaren nahikotasun maila? Oso desorekatua ikusten dut nik balantza: euskaraz “defenditzearekin” nahikoa da; gaztelaniaz, ondo egin behar da.

Badakit nik ez dela gai erraza. Gaurko herritarren harreman munduak ez du lehengoarekin inolako antzik: ikasketengatik, lanagatik, oporregatik... kanpo-herrietan edo kanpo-herriekin harremanetan

pasatzen du gaur jende askok bertan beste denbora. Beste hizkuntzen beharra lehengo aldean handia da.

Baina gai honetan diskurtso koherente eta adostu bat sortzen ez badugu, jai dugu: euskara jakitearekin, “defenditzearekin” nahikoa izango da; erabili gaztelania egingo da.

Elebitasun orekatuaren lilura saltzen gabiltza baina hortik nekez etorriko zaigu normalizaziorik. Gaur, nahi barik ere, 13-14 urteko euskaldun batek gaztelaniaz 6a lortua dauka. Kontua da euskaraz 7a nahi dugun ala 4arekin edo 5arekin konformatzen garen. 4a edo 5a nahikoa badugu, modu batean jokatuko dugu, 7a badugu helburu, berriz, oso bestela. Bergara batean euskaraz ”jakitea” badugu jomuga berdin izango zaigu eskola orduz kanpoko ekintzak edo etxeko hizkuntza gaztelania izanda ere; total, maila hori eskolak ere bermatuko dio.

Horrekin lotuta, ez nituzke ahaztuko oraindik ere gure artean izaten diren zenbait kasu mingarri. Gure ikastolan 8 urterekin hasten dira gaztelania ikasten. Bergaran ere badira, eta beste zenbait herri txikitari zer esanik ez, adin txikiagoko umeak, gaztelaniaz gutxi dakitenak edo ondo moldatzen ez direnak. Prestatzen ditugu eurak eta euren gurasoak egoera hori normaltasunez eta asertibitatez bizitzeko? Badakite zer erantzun *¡Ay qué pobre, no sabe castellano!* entzunez gero?

“Pixka bat es mucho” ondo egon liteke baina, Amonarrizek (2008) dioen bezala, Berastegiko gazte euskal hiztun onek Tolosara jaistean moderno agertzeko beren berba-jarduna kaxkartzen badute, oso bide okerretik goaz.

Behar-beharrezkoa iruditzen zait, beraz, euskal hiztun onenak prestigiatzeko bideak jorratzea.

7.1.2. Kalitatearen ikuskera

Azken urteetan dezente hitz egin da gure artean kalitatearen gaiaz eta, oro har, egon da ikuskera aldaketa bat:

Azken urteotan, garai batean gailur-gailurrean zeuden hizkuntza funtzionamenduari buruzko postulatuetan aldatu egin dira: eredu formalak indarra galdu egin dute eredu pragmatikoen eta komunikatiboen mesedetan. Gauzak horrela, zuzentasun formalak eta gramatikalak lekua utzi behar izan die beste zuzentasun-mota batzuei: komunikatiboari, estrategikoari, hartzailearen ikuspegiaren arabera osatutakoari, eta abar. (Larringan & Idiazabal: 2004)

Ildo beretik jotzen dute Amonarriz, Egaña eta Garziak Euskarenen Aholku Batzordeak (2004) argitaratutako kalitatearen gaineko beren txostenean, hau da, kalitatea euskara zuzenean barik euskara egokian oinarritzearen aldeko planteamendua egiten dute, ‘egoki’ hori honela definituz: “lortu nahi duen helburua lortzeko ‘egokia’ den euskara.”

Inor gutxik jarriko du gaur egun ildo berri hori zalantzan.

Hala ere, horrek esan nahi du zuzentasuna baztertu egin behar dugula? Nire ustez ez; nahiz eta jakin gai korapilatsua dela hainbat arrazoigatik:

a) Esaldi bat okerra noiz den esatea ere ez da beti erraza. Gehixago eta Hobeton, guk, batez ere, euskaraz txukun samar moldatzen diren hiztunen berbeta hartu dugu zuzentasunaren eta jatortasunaren neurri. Horrek baditu bere arriskuak: munduko hizkuntza guztiak ari dira etengabe aldatzen eta gurean ere hori ezinbestekoa da.

Bestalde, akats guztiak ere ez dira maila berekoak. *Nire urtebetetzea* edo *nire eguna*-ren ordeztan *nire zorionak* erabiltzeak ez dio, gure ustez, euskarari ezelako ekarpenik egiten. Gaztelan jasotako zenbait lokailu (*eske*, adibidez) edo euskararen baitako bilakaeratik sortutako beste egitura batzuk (*kristoren*

ona) lagunarteko erregistroan onartu beharrekoak izango dira, ostera.

Beraz, beharrezkoa da kasu bakoitzean adostea zer zuzendu eta zer ez, “zuzentzaileok” koherentziaz jokatzeko.

Hiperzuzenketarako arriskua ere badugu. Hainbat urtean baztertu egin izan da eta gaur ere askorentzat ez da zuzena, esaterako, *zergatik* lokailu gisa erabiltzea, nahiz eta adinekoetan oso normalak diren hau bezalako esaldiak: *Etzaittez biar etorri, zegaittik eze biar illan azkena da ta jente asko egongo da*. Gaur Euskaltzaindiaren gramatikan ere onargarritzat jotzen da.

b) Askotan errazagoa da gaizki zer dagoen esatea irtenbide onak ematea baino. Akats guztiak ez dira berdinak zuzentzeko erraztasun edo zailtasunaren aldetik ere. Ez da gauza bera lexikoaren erabilera okerra (“*Nire zorionak dira*”) zuzentzea edo erabilera oso konplexua duen juntagailu batekin (esaterako *ere*-rekin) egiten den akatsa zuzentzea.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar hizkuntzaren helburua komunikatzea dela eta proposatzen ditugun irtenbideak komunikazio aldetik egokiak, bideragarriak, arrakasta izateko modukoak, izan behar dutela. Euskaraz, adibidez, aurreko lokailu gutxi dugu. Horregatik sartu zaizkigu *eske, yake, osea, incluso...* Askotan ez da batere erraza horien ordain bideragarriak bul-tzatzea.

c) Kontu izan beharra dago ume edo gazteen euskaraganako motibazioa ez kaltetzeko. Akatsean, gaizki egindakoan, indar gehiegi jartzen badugu, gerta daiteke zuzentze-lanaren presioa jasanezina izatea eta jendea gogaitzea. Beraz, ondo aukeratu beharko dugu zuzenketa-unea eta kontuan izan beharko dugu, adibidez, emozio handiko une bat ez eteteko...

Edozein kasutan, horrek ez gintuzke eraman behar zuzentasunaren gaia gutxiestera. Goian azaldutako Euskararen Aholku Batzordearen txostenak (2004) ere aitortzen du zuzentasuna ere aintzat hartu beharra:

- Hizkuntzaren kalitatea eraginkortasunean jarrita, urrats handia egingo genuke, bide batez, motibazioaren alorrean.
 - Hala eta guztiz ere, horrek ez gintuzke eraman behar kalitatearen gainerako alderdiak baztertzera. Eraginkorraz gain zuzena eta jatorra bada, hainbat hobe.
 - Kalitate integrala litzateke hori, eta horrek behar du izan, bistan denez, helburu. Euskara ona deituko diogu txosten hone-tan horri.

Inolako zalantzarik barik, hizkuntza indartzeko bide nagusia erabilera da baina erabilerak forma zuzenak zein akasduak sendotzen ditu. Hizkuntza traketsaren aurrean kasurik egiten ez badugu, hori sendotuko da. Nik uste dut ona dela transmisoreei azaltzea zer dagoen ondo eta zer txarto. Gurasoei esaten ez badiegu “nire zorionak” ez dela tradiziozkoa eta horren ordez “nire eguna” edo “nire urtia” esan izan dela Bergaran, “nire zorionak dira” erabili eta zabalduko dute.

Era berean, ez genuke pentsatu behar “lortu nahi duen helburua lortzeko ‘egokia’” izateak, euskara ez izateko lizentzia eskaintzen duenik. Ez gintuzke eraman behar hizkuntza-aldaketa etengabea onartu edo horren erabilera fribolizatza.

Gure herrian guztiz zabaldua dagoen gaitza da, baita transmisore eredu-zko izan beharko luketen (irakasle...) batzuetan ere, berbeta bizi-adierazkorra nahi denean gaztelaniara jotzea: *¡qué ganora!, ¡qué sosas zaeten!...*

DBH-2ko ikasleen inkestako datuei kasu eginez gero, goraka doan fenomeno da, gainera. Hona hemen:

4. taula. Euskaraz hitz egiten duzunean, erdarazko esaldiak tartekatzen dituzu?(%) DBH-2ko ikasleak

Inkesta urtea	Bai, sarritan	Oso tarteka	Ez, normalean ez	Ez dut euskaraz hitz egiten
2000	29,4	28,8	41,8	-
2006	24,6	26,1	47,8	1,5
2008	44,7	25,0	30,3	-

Iturria: Bergarako Udala.

Begarako Ipintza institutuko ikasleek parodiatu zuten gai hau Koldo Eleizalde lehiaketara aurkeztutako “Euskararen Eskizofrenia” izeneko lan batean:

- *Ikusi ziñuten atzo tele?*
 - *Bai! Visteis lo del tio aquel flipau.*
 - *Bua, si, si! El pabo era todo un makina.*
 - *Ya, el tio todo jefe... beste danei irabazi zotzen.*
 - *Lo que hacia era mogollon guapo,*
 - *Baina que nik aurretik ikusi notzan nunbaitxen.*
 - *Bo tu, que dices! tu flotas.*
 - *Que egixa da! Si etorri zan Bergarara itxera demostrasino bat.*
- (...)

Kasu hartan ikasleek nolabait gaingitu beharreko bidezkat jotzen zuten. Baina ez dirudi denek hala ikusten dutenik, gazteei zuzendutako euskarazko zenbait hedabidetan entzun eta ikusten denaren araber. Euskadi Gaztea aipa genezake edo sortu berri den Gazteon KZ izeneko aldizkaria. Bertako fotonobela batetik jasotakoak dira hauek:

- *Pues ahora, Arantzarekin geratzera noa. Ea Xabierekin ligatzeko zer egin dezakedan “okurritu” zaion...*

- *Iupi Maider, kafea hartzen nago. Geratzerik bai?*
- *Bale ba, eskolan geratzen gara en quince minutos. Apunteak hartu behar ditut.*
- *Tira, hona dator Aran. A ver ze “okurrentzia” daukan para que Xabi sea mi txurri...*

Jakin badakit gai hau ere ez dela erraza. 23 urteko lankide batek esan dit berriki:

“Ze onal!?, hori ez du gure edadeko inork esaten; danak, ¡Qué bueno! ’Ze oná’ erabiltzen dogu ondo egin behar dogunean baina lagunartean ez”.

Muñoak (2002) dioen bezala, kode-aldaketa ez da beti gertatzen baliabide linguistikoen faltaz. Kasu horretan ez da baliabide faltagatik; ez da euskaraz gaztelaniazko egitura bat edo argoteko hitz bat ez izateagatik. Gaztelaniazko egitura eta lexiko guztiz arruntak aukeratu dira eta gaztelaniazko esaldi arrunt bat (ez gaztelaniazko lexiko edo egitura jakin batzuk), bihurtu da, besterik barik, adierazkortasunera-ko baliabide. Muñoak dioen moduan, honelako kasu batean geundek:

Gumperz-en ustetan, kode-aldaketa diskurtso-mota bat da, hau da, hizkuntz komunitate bateko hiztun elebidunek komunikaziorako hautatu dezaketen aukera bat, hiztun elebatarrek erregistro edo dialekto ezberdinen artean mugitzea edo batetik bestera aldatzea aukeratu dezaketen antzera.

Edozein modutan, dena delakoagatik, hizkuntza aldaketa aldizkora jotzen dugunean hizkuntza aldaketa erabatekora bidean urratsak ematen dihardugu: gure euskarazko trebetasuna ahultzen eta gaztelaniazkoa handitzen.

Pentsatzen dut, beraz, argitu beharko genukeela nola ulertzen dugun bakoitzak kalitatea hobetzeko eta, beraz, euskara normaliza-

tzeko bidean duen eginkizuna. Ez baitute bera irratiko esatariak, irakasleak, euskaldunzahar erdi alfabetatuak eta euskaraz lau berba dakizkienak. Ez baita gauza bera, halaber, pertsona berari ere txiki-teoko jardunean eta irрати-magazine bateko esatari-lanetan eskatu behar zaiona. Guztiek dute zer egina kalitatea hobetzearen aldetik baina kalitate hori ezingo dugu kasu guztietan parametro berekin juzkatu.

Eta hor erantzukizunik handienekoak, gehien eskatu behar zaientak, transmisore nagusiak dira: kazetariak, irakasleak, begiraleak, guraso gazteak...

7.2. Apustuaren tamaina, lehiakide handiak

Errepara dezagun zer duten hizkuntza-elikagai gure ume eta gaztetxoek, nondik janaritzen diren. Hona hemen zenbait datu:

A) FAMILIA

Ematen du familiari dagokionez, trantsizio-egoera batean gaudela eta barrena jo ondoren, goranzko bidea hartua dugula. Hala agertzen digute azpiko taulok:

5. taula. Gurasoen arteko erabilera etxean.
DBH-2ko ikasleen gurasoak. (%)

Inkesta urtea	Beti euskaraz	Euskaraz nagusiki	Erdaraz nagusiki	Beti erdaraz	Beste hizkuntza batean
2000	27,9	14	30	27,9	—
2006	21,6	17,2	29,9	29,9	1,5
2008	19,7	24,2	25,0	30,3	—

Iturria: Bergarako Udala.

6. taula. Gurasoen arteko erabilera etxean.
3 urteko ikasleen gurasoak. (%)

Umearen jaioturtea	Euskara	Gehienbat euskaraz	Gehienbat gaztelaniaz	Gaztelaniaz	Besterik
1999 ⁵	21,5		28,5	50	
2004	27	11	23	45	4
2005	30	13	5	50	1

Iturria: Bergarako Udala.

Urte gutxian, gaitasunari dagokionez, behintzat, ikaragarritzko jauzia izango da: 1993an jaiotako gurasoen etxeetan %35 bakarrik ziren bi gurasoak ondo zekitenak. Hemendik 5-10 urtera %70 inguru izan litezke. Horietako asko, gainera, euskaraz eskolatutakoak izango dira. Badirudi, beraz, familiak gero eta joko handiagoa eman lezakeela eta hori umeen erabilera ere antzeman behar litzatekeela.

Kakoa hau izango da: gaitasunak eskainiko digun aukera hori nola bihurtu erabilera.

B) HEDABIDEAK

Ondoren datozenak gorago adierazitako inkestaren bidez DBH-2ko ikasleei (guztiak D eredukoak) jasotako erantzunak dira. Honako galdera egin genien inkestan ikasleei: *Zein telebista programa ikusi zenuen atzo?*

Euren erantzunetan oinarrituta ateratakoa da taula hau:

⁵ Oharra: 1999an jaiotakoetan *Euskaraz nagusiki* eta *Gaztelaniaz nagusiki* bana-ketarik ez zen egin ikastetxe guztietan eta denak batera jaso ziren, *Bietan* sailean. Guk *gaztelaniaz nagusiki*-n batu ditugu, nahiz eta hori ez den guttiz zuzena.

7. taula. Aurreko egunean ikusitako telebista programen hizkuntza. DBH-2ko ikasleak

Hizkuntza	%
Guztiak euskaraz	3,3
Gehienak euskaraz	6,7
Bietan berdin	10,0
Gehienak erdaraz	5,8
Guztiak erdaraz	74,2

Hona hemen, berriz, programa aipatuena:

8. taula. Aurreko egunean ikusitako telebista programa ikusien zerrenda. DBH-2ko ikasleak

Programa	Hizkuntza	Zenbatek aipatu duten (Guztira 132 ikasle)
El hormiguero	G	37
Monk	G	20
El internado	G	19
Los simpson	G	17
Vaya semanita	G	10
Fama y a bailar	G	10
Gran hermano	G	9
Betizu	E	7
Sin tetas no hay paraíso	G	6
Noticias (cuatro)	G	6
La tina	G	6
Hospital central	G	6
Goenkale	E	6
Escenas de matrimonio	G	6
Aída	G	6
Mihiluze	E	5

Datuak guztiz argigarriak dira. Baina bada beste bat ere: aurreko egunean ikusitako programa guztiak kontatuta gaztelaniazkoak 66 ziren; euskarazkoak, 11.

Era berean, egin zitzairen beste honako galdera hau ere: *Euskarazko telebista-programarik ikusi duzu azken 3 egunetan? Zein?*

%50,8ak erantzun zuen baietz, hau da erdiek apenas dute euskarazko hedabideekin inolako kontakturik.

Hona hemen batek baino gehiagok aipatutako programak:

9. taula. Aurreko 3 egunetan ikusitako euskarazko telebista programa ikusien zerrenda. DBH-2ko ikasleak

Programa	Zenbatek aipatu duten (Guztira 132 ikasle)
Mihiluze	18
Goenkale	17
Betizu	12
Keroro Sarjentua	4
Marrazki bizidunak, etb1	3
One Piece (etb1)	3
Pilotari	3

C) IKT

Errepara diezaiogun, azkenik, teknologia berrietan darabilten hizkuntzari. Arlo honetan ere datuak beheranzkoak dira.

10. taula. Teknologia berrietan darabilten hizkuntza (%).

DBH-2ko ikasleak

		Beti euskaraz	Euskaraz gehiago	Bietan berdin	Erdaraz gehiago	Beti erdaraz	Ez dut aktibitate hori egiten
E- mailak	2006	18,4	18,4	19,2	8,0	8,0	28,0
	2008	12,9	16,1	21,0	17,7	14,5	17,7
Sms-ak	2006	26,0	25,2	16,3	10,6	8,1	13,8
	2008	14,3	22,2	18,3	18,3	15,9	11,1
Txat-a	2006	20,3	18,6	24,6	11,9	3,4	21,2
	2008	10,0	19,2	26,9	16,2	13,1	14,6

7.3. Zer egin dezakegun

Egoera hori izanik, zer egin dezakegu? Bidea ez da erraza eta horrek sormena lantzeraz eta gure indarrak batzera eramane behar gaitu. Txiki izanik asmo eta jakinduria guztiak beharko ditugu gure lekutxoan egiteko.

Jarraian, nire ustez, kontuan hartu beharko liratekeen zenbait irizpide plazaratuko ditut. Era berean, botako ditut zenbait ekintza-proposamen ere, inondik ere gauza exhaustibo bat proposatzeko asmorik barik. Horietako batzuk momentuko ideia huts baina ez dira baina beste batzuek ere berenak botatzeko zirikagarri izan nahi dute. Seguru edonori bururatuko zaizkiola hobeak.

7.3.1. Lan egituratu inaunkorra, herrikoa eta herriz gaindikoa. Erabilguneak

Geure buruei lorpenen bat aitortzekotan esango nuke hauxe izan dela: ahozko euskara hobetu behar diren inguruko kontzientzia bat sortzea eta gai horren inguruko herri mailako programa iraunkor bat abian jartzea. Izan ere, gai hau ez baita urte batean eta bitan bukatze-

koa; ezta esparru batean edo bitan bakarrik jorratzekoa ere; hizkuntzaren geroa jokatzeko den esparru guztietan lantzekoa baizik: familian, aisian, eskolan, lan-munduan...

Horietan lehenengo-lehenengo erabilera bermatu behar da eta gero, erabiltzeaz batera, kalitatea landu.

Bestalde, esango nuke herri mailako antolaketa ere gainditzea eskatzen duela.

Herri hizkera langai hartzen dugunean badugu txokokeriara jotzeko arriskua. Geure herriko hitz bitxiak huraxe bultzatu nahia. Ezer gutxietsi barik, luxu handia iruditzen zait. Luxu ekonomikoa eta soziolinguistikoa.

Era berean, barkaezina izango litzateke gutariko bakoitzak sortzen duguna ezkutuan gordetzea. Gorago esan bezala, software librearen filosofia behar dugu.

IDEIAK:

- **Lan-mundua.** Euskara-planetan ahozko kalitatearen gaia txertatu. Guri eskatu dizkigute Gehixago eta Hobetoko materiala lan-tegietan erabiltzeko.
- **Erabilguneak:** Esparru soziokulturaleko taldeekin (bereziki, kirol arlokoekin) hitzarmenak egitea 18 urtez azpikoentzako jarduerak (entrenamenduak...) euskaraz izan daitezzen.

7.3.2. Corpora landu, didaktizatu eta eredu egokiak eta langaiak eskaini beharra...

Joxerra Garziak (2004) esandakoa da: *Egokitasuna ardatz harturik, egoera komunikatibo estandarizatu eta normalak landu behar ditu eskolak, gainerako guztia (zuzentasuna eta ontasuna) horren zerbitzura jarri.*

Bat nator ni horrekin baina ahozkoaz badihardugu, eskaintzen ditugun ereduak ezingo dira berak izan Ondarrun eta Legorretan, Bergaran eta Gasteizen. Eta hori hala izateko, eskolak beharko ditu laguntzak ere.

Askotan izan dugu eskolaren lana kritikatzeko joera: komunikazioa landu beharrean, erabiltzen ez diren aditzak lantzen jarduten duela, hizkuntza erabiltzen erakutsi barik, hizkuntzaren mekanika erakusten duela... Seguruena arrazoizkoak izango ziren kritika horiek baina uste dut izan dela hor ere aldaketa bat eta gaur egungo irakas-moduak eta irakas-materialak aldatu direla.

Eta pentsatzen dut eskolari eskatu bai baina lagundu ere egin behar zaiola. Nik, adibidez, beharrezko ikusten dut, eskolekin batera jardunik, eredu onen corpus antolatu erabilgarriak osatzea.

Eredu erabilgarriak diot eta oso garrantzitsua iruditzen zait hori. Askotan izan dugu joera euskalkia etnologiarekin, gauza eta pertsona zaharrekin, jaso eta gordetzearekin... lotzekoa. Pertsona edadetuen grabazio pila bat ditugu han-hemenka baina aitor dezagun askotan oso zaila dela horiek eskoletan erabiltzea: gaiagatik, grabazioen kalitateagatik... Berez, horiek jasotzerakoan, ez delako buruan izan gero zer erabilera izan zezaketen.

Ahozko testu onak behar ditugu baina euskarri kalitatezkoetan eta ume eta gazteei hurbileko izango zaizkienak. Ditugun corpusak aztertu eta ikastetxeetan erabilgarri izango direnak aukeratzea izango da, beraz, dugun lanetako bat. Horretaz aparte, nik pentsatzen dut askotan berariaz sortu behar ditugula testuak. Sortu eta sortu eragin: umeek, gazteek eurek laguntzatxo batekin sortutako testuak izan litezke hainbatetan eurentzako esanguratsuagoak. Baina sortu ez da hutsetik sortzen. Erreferentziak behar dira. Nondik janaritu behar da. Horregatik diot sorkuntza lagundua bultzatu behar dugula.

Bestalde, testuok didaktizatu ere egin behar ditugu, testuok lan-
tzeko ariketak gertatu eta zabaldu. Eta testua diodanean esaldi mota
bat edo lexikoa ere izan liteke. Dantza-pausoek ez dute zentzurik pie-
za baten barruan ez badira, baina, aldi berean, ez dago dantzan ikas-
terik pausuak ikasi barik. Dantza pausoak entsaiatzen diren bezala,
hizkuntza piezekin ere jolas egin behar dugu.

IDEIAK:

- **Ahotsak.com** webgunean eskoletan erabilgarri izan litezkeen grabazioen aukeraketa bat egitea eta bertan txertatzea, aldi berean, gazteen grabazioak.
- **Bergara aldeko hiztegia**. Arlokako glosarioak eta esapide bildumak osatzea.
- **Sentimendu adierazpenekin** (hasarreekin, pozekin, gurariekin...) lotutako ahozko testuak sortzea eta sortaraztea: bakarrizketak, elkarrizketak...
-

7.3.3. Hizkuntza ereduari buelta batzuk eman beharra

Gorago esan bezala, helburua ezin da izan gaizki dagoena seinatzea, baizik eta eredu onak, erabilgarriak, eredu komunikatiboak, gaur egun funtzionatuko dutenak... eskaintzea.

Eta beti ez da erraza izaten izan ere baditugu hainbat gabezia. Esaterako, erdiko lokailuak, euskaraz tradizioan erabili izan direnak ere, baztertu samartuak izan ditugu eta horien lekua gaztelaniak hartu du.

Adibide bat jartzearren, Bergarako umeen artean zabaldu izan da une batean konparatiboetarako lokailu gisa “tipo” erabiltzea. *Bergara aldeko hiztegian* jasota dago pareko erabilera duen juntagailu bat:

- *zein dda.* (d). juntagailua. Konparazio juntagailuaren indargarria, oso adinekoek bakarrik darabiltena. Como si... *Diarra bate-tik bestera, segimena, zein dda sokian moduan, kilometruen moduan.* Hil./ *Otx ein basuai, zein da etxia balitz letz, da arek euparia ein dda kontestau daben moduan kontestau.* Hil./ *Zein dda... eztaikit ze balitza bezelaxe.* Klem.

Era horretakoak (zegatik ze, ezpadaze, zela...) ez dira eskolan transmititzen eta bultzatu egin beharko genituzke.

Halako kasuetan bestalde, uste dut herri hizkeraren ikuspegi oso zabala eduki behar dugula. Ni ez naiz horretan gauzak garbi eta puru mantentzeko joeraren aldeko. Badihardugu elkarteak finkatuak ditu *Euskalkian idazteko irizpideak* eta bertan honakoa jasotzen da: *gure hizkeran berba “formalik” aurkitzen ez dugunean, batuko lexikora joko dugu, eta ez erdarara.*

Pentsatzen dut lexikoan ez ezik egituretan ere ez genukeela izan behar erreparorik gure herrikoak ez diren baina joko eskain dezaketen egiturak bultzatzeko. Berez ere gertatzen da hori: gure inguruan ez zen “baizik eta” inoiz erabiliko oraintsu arte; gaur, oster, entzuten da tarteka baita euskaldunzahar alfabetatu gabeen ahotan ere. Bultzatzeko bidea iruditzen zait.

IDEIAK:

- Komunikazioaren aldetik plus bat eskain dezaketen diskurtso-elementuak identifikatu eta bultzatu.
- Teknologia berriak eta hedabideak erabiliz, *Euskararen Herri-Akademia*⁶ sortu, herritarren ekarpenak jasotzeko lexiko, esamolde eta halako gaietan.

⁶ Uneoro sortzen dira gure herrietan gaztelaniazko izenak. Adibidez, olibondoak sartu zituzten orain dela 5-6 urte Bergarako urbanizazio berri batean. Gaur “Los Olibos” esaten diote herritarrek zona horri. Holako ekimen batek euskarazko izen egoki bat bilatzeaz gain, euskaraz sortzeko kontzientzia piztu lezake, modu ludiko baten.

7.3.4. Ahozkoaren lanketaz jantzi beharra

Ahozko berbeta hobetzeko, ahozko langaiak, ahozko elikagaiak, behar ditugu eta horrek orain artekotik aldaketa sakona eskatzen du. Oraindik ere eskolako jardun nagusia paperaren gainean eraikita dago: idatziz egiten dira eskolako lanketak eta idatziz egiteko lanak izaten dira etxerako agintzen diren gehien-gehienak. Zalantzarik barik eskolak izango ditu hor bere mugak (talde handiak, denbora...) baina, mugak muga, ahozkoaren protagonismoa indartzen ahalegin-du beharko genukeelakoan nago, Euskara 21 hausnarketan Itziar Idiazabalek (Euskararen Aholku batzordea 2008b: 25) adierazi bezala:

Euskararen irakaskuntza alorrean, hasi haur eskolatik eta unibertsitatera, eta gainerako irakaskuntza maila edo molde guztietan (euskaltegi eta prestakuntza berezietan) ahozko mintzoari eman behar zaio lehentasuna, modu (genero, testu-molde) formalak eta ez formalak garatu behar dira, bakoitza bere erabilera testuinguruan, jakina, eta irakaskuntzaren maila guztietan.

Eta aldaketa horrek ahozkoaren lanketaz jantzi beharra eskatzen du: ahozko hizkeraren ezaugarriez janztea, baliabide prosodikoak lantzen ikastea, teknologia berriek ahozkoari dagokionez eskaintzen dituzten aukerez jabetzea...

Bestalde, eskola alde batera utzita, ahozko hizkera bizia (esapidetak, argota, hizkera bizia...) nekez transmitituko da idatzizko euskarriekin, horietan askotan hitzak bezain inportanteak izaten baitira baliabide prosodikoak, hitzaren osagarriak.

7.3.5. Lagunarteko hizkera, hizkera emotiboa, alderdi ludikoa

Euskara lanarekin, nekearekin, azterketekin... lotuegia dugu eta horri buelta eman behar diogu. Indar berezia jarri beharko genuke euskara jolasarekin, gozatzearekin... uztartzeko.

Badira horretan ahalegin txiki batzuk: lagunarteko hizkera lantzeko saioak, gai berari buruzko argitalpenak, hizkuntza jokoak ... Ugaritu egin beharko lirateke. Bestalde, badugu arriskua berbeta beroa gazte hizkerarekin, argotarekin... bakarrik lotzeko eta nik uste zabalago hartu beharko genukeela. Berbetan hasten garenetik bertatik hasten gara gure sentimenduak azaltzen: haserrea, poza, beldurra... Bestalde, gaur egun heziketa emozionalari garrantzia ematen zaion garai hauetan ez genuke ahaztu behar emozioak, besteak beste, hizkuntzaz ere adierazten direla.

IDEIAK:

- **Txiste eta umorezko pasadizoen fondoak.** Txiste lehiaketak bultzatu eta jasotako materialik onenak Interneten ahozko fondo zabal bat osatzen joan.
- **Irain eta piropo-makina sortu.**

7.3.6. Baliabide indartsuagoak behar ditugu. IKT eta Hedabideak...

Gorago esan bezala, elikabideetan ikaragarrizko desoreka dugu: teknologia berrietan, hedabideetan... Ezinezko izango dugu hori guztiz orekatzea baina gehiago baliatu behar genituzke; ezin dugu paperezko zerrendatxoekin gaztelaniarekin lehiatu... Guk ez dugu beste aukerarik: software librearen filosofia gureganatu eta kontsumitzaileok ere sortzailer bihurtu: *prosumidore* izan. Umeei, gazteei, gurasoei... protagonismoa eskaini behar genieke: sortzaile izanik, gozatzeko aukerak eman.

Teknologia berriek aukera bikainak eskain diezazkigukete, adibidez, ahozko euskararen ereduak zein ahozko euskara lantzeko ariketak edozeinek klik batez eskuratzeko eta baita gutariko bakoitzak ere bere ekarpenak egiteko.

Era berean, tokiko hedabideei, bereziki tokiko telebistei, etekina zela atera diezaiekegun ere aztertu beharko genuke, gaur egun gazteek oso presentzia txikia baitute.

IDEIAK:

- **Sare sozialen aplikazioak** euskaratu eta bultzatu eta bertan euskarazko lagunarteko hizkerako esamoldeak txertatu.
- **Umeentzako telebista programa** partehartzailea sortu⁷.
- **Gaztetxo eta gazteentzako programa** interaktibo eta partehartzailea sortu, bereziki umorea eta hizkera ludikoa oinarri izango lukeena.
- **Gazteei bideratutako “komunikatzaile-eskola”** sortu, gero onenak tokiko hedabideetan erabiltzeko.

7.3.7. Egoera ulertzeko ikerlanak eta egindakoa ebaluatzeko tresnak

Konplexua eta jakintzaren arlo askotatik aztertzea da hizkuntzekin dugun harremana: hizkuntzekiko atxikimendua, hizkuntzekiko nahi eta ezinak... Konplexuak dira, halaber, hizkuntzak sustatzeko bideak ere. Hori dela eta, Anjel Lertxundik (Euskararen Aholku batzordea 2008a) dioen moduan,

Aztertu beharra dago, bada, bi hizkuntzen arteko harremanean zergatik eta zertan galtzen duen euskarak. Non eta nola irabazten dion gaztelaniak euskarari. Zertzuk diren olioztatu gabe ditugun hizkuntz mekanismoak, ongarritu gabe dauzkagun hizkeraren eremuak, ongarrri gehiegiz itota dauzkagunak.

Bestalde, ebaluazio-tresna egokiak ere falta zaizkigu. Zalbidetik (Euskararen Aholku batzordea 2008a) oso ondo nabarmentzen duen

⁷ Debagoienean joan zen urtean umeentzako euskarazko kantu-programa bat sortu zen. Iaz 600 umek hartu zuten parte eta aurten 800ek eman dute izena. Horrek erakusten du gaur egun hedabideen ekarpena oso inportantea dela edozein ekimen kulturazko edo aisiazko bultzatzerakoan ere.

moduan, egiten ditugunak hizkuntzaren osasuna hobetzeko duten balio-indarraren arabera neurtu behar genituzke. Izan ere, izan deza-kegu arriskua helburua bete den baloratu ordeztu, egin duguna bera baloratzeko: hartutako lanaren tamaina, sortu ditugun materialen erakargarritasuna eta abar.

IDEIAK:

– **Balitzko ikerketak:**

- Kode-aldaketaren arrazoiak eta gainditzeko bideak.
- Ume eta gazteen euskalkiaren ezaugarriak.

8. AMAITZEKO

Bi puntu nagusi azpimarratuz bukatuko dut:

- Dena erabileraren zerbitzura jarri behar genuke. Euskalkia, euskara hobetzea... horretarako behar dugu: erabiltzeko. Eta euskalkia, euskara horrela hobetuko dugu: erabiliz.
- Ahozko hizkuntza lantzeko, hobetzeko, sortzeko... eta, batez ere, ahozko hizkuntzaz jolas egiteko sare zabal bat eratu behar genuke eskola, aisia gunee, hedabide, lantegi eta abar partaide direla.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

AMONARRIZ, K. (2008): *Gazte hizkerak – hizkera gazteak*. Bat, 68. 167-183.

ASKOREN ARTEAN. (1988). *Bergarako euskera*. UNED, Bergara.

BADIHARDUGU ELKARTEA (2004). *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak. Debarroko hizkeretan*. Badihardugu elkarteak.

- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004): Euskararen Kalitatea. Eusko Jaurlaritzaren Gasteiz.
- ELEXPURU, Juan Martin (2004). *Bergara aldeko hiztegia*. Bergarako Udala, Bergara.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2008a): *Euskara 21. Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*. Kultura Saila. 2008
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2008b): *Euskara 21. Eztabaidarako gaiak*. Kultura Saila.
- GARZIA, Joxerra (2004). Euskara komunikatiboa. Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresua. <http://www.argia.com/kazetaritza2004/joxerragarzia.pdf>
- LARRINGAN, L.M. & IDIAZABAL, I. (2004).
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1089271232.
- MUÑO, Inma. (2002). Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? BAT 42.
- ZUAZO, Koldo. (2002). *Deba Ibarretik euskararen herrira*. Badihardugu Euskara elkartearen argitaerata.